

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
20 positibo berri	277 hildako	20 positibo berri	488 hildako
3.077 positibo guztira*	77 ospitalizatuta	7.462 positibo guztira	2.023 ospitalizatuta
*Hernanin 55 Astigarragan 20		Sendatuak EAEn: 17.677 Naf: 3.014	

## Merkatari eta ostalarientzat, maskarak eta gel desinfektanteak banatuko dira gaurtik aurrera

Hernaniko Udalak, herriko merkatari eta ostalarientzat maskarak eta gelak jarri dituzte eskuagarai, eta gaurtik aurrera hartu daitezke Berriak elkartearen, goizeko 09:00etatik, 12:30etara. Bina maskara banatuko dira.

### HERNANI UDALA

Gaur, lehenengo fasearekin batera, hainbat taberna eta denda irekitzeko baimena eman du Espainiako Gobernuak, eta Eusko Jaurlaritzak. Hori horrela, «salto-kietan irekiera seguruagoa izaten laguntzeko» maskarak eta gel desinfektanteak banatuko dituela jakinarazi du Hernaniko Udalak, gaurtik aurrera.

**Materiala, Berriak elkartearen** Banaketa, udalak Berriak elkartearekin batera egingo du,

elkarlanean ari baitira. Horregatik, Berriak Elkartera joan behar da maskara eta gel desinfektantearen bila, Andre Kale, 30 zenbakira, hain zuzen.

Udalak argi jakinarazi du, gehienez 2 maskara banatuko direla establezimendu bakoitzarako. Eta gela jasotzeko «bakoitzak bere edukiontzia eraman behar du betetzeko», hau ere segurtasunagatik.

Beraz, gaurtik ostiralera, goizeko 09:00etatik 12:30etara, aukera dago materiala eskuratzeko. **K**



Udalak jakinarazi du, bi maskara banatuko direla establezimendu bakoitzeko.

## Norbere bizitokian eta inguruko herrietan kirola egiteko baimena eman du Eusko Jaurlaritzak

Konfinamendua «arindu» egin da, izan ere, lehenengo faseari ekin diogu gaur. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak mugatu egin ditu hainbat jardura.

### URUMEA LEHENENGO FASEA

8 aste igaro dira konfinamendua hasi zenetik, eta gaur «arindu» egin da, izan ere lehenengo fasean sartu dira, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa. Hala ere, lehen fase ezberdinak izango dira, Eusko Jaurlaritzak, hainbat jardura mugatuko baititu Euskal Autonomia Erkidegoan.

### Ezarrirako mugak

EAEko herritarrek, udalerririk bareruan mugitu ahal izango dira, horrez gain, herritarrek hiru

Lurralde Historikoen artean mugitu ahal izango dute «osasun arrazoiengatik, lan arrazoiengatik, etxera itzultzeko, hezkuntza arrazoiengatik, eta bisitatu egiteko ere bai, bisitatu behar dena zaintza behar duen adineko bat, dependentziaren bat, desgaitasunen bat edo beharrez dagoen norbait bada; nahiz antzeko arrazoiengatik».

Gainera, Eusko Jaurlaritzak korrika, bizikletan ibiltzea, mendira joatea, paseatzea eta antzeko kirol jarduerak egitea baimendu du norbera bizi den

herrian eta ondoko herrietan. Eta jardura sozioekonomikoak egitera joateko baimena ere eman du. Halaber, orain, norbere herrian inolako mugarik gabe ibili ahal izango da, izan ere, orain arte gehienez kilometro batera arteko paseoak eman zitezkeen.

### Ordutegiak

Eusko Jaurlaritzak, bat egin du Espainiako Gobernuarekin baldintza honetan, izan ere, paseoak emateko, kirola egiteko eta umeekin kalera ateratzeko Espainiako Gobernuak zehaztutako ordutegiak mantenduko dira gaurtik aurrera.

5.000 biztanletik beherako udalerririk dagokienez, ez dute mugarik izango ordutegietan, orain arte bezala.

### Nafarroan, udalerririk atera daiteke

Nafarroan, udalerririk ateratzeko baimena eman dute lehenengo fase honetan, eta baldintzarik gabe.

Aipatu moduan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, beste herri batera joateko baimena dago, «osasun arrazoiengatik, lan arrazoiengatik, etxera itzultzeko, hezkuntza arrazoiengatik, eta bisitatu egiteko ere bai, bisitatu behar dena zaintza behar duen adineko bat, dependentziaren bat, desgaitasunen bat edo beharrez dagoen norbait bada; nahiz antzeko arrazoiengatik».

### Pertsonen artean, «mi metroko distantziak mantendu»

Harremantzerako garaian, ge-

hienez 10 laguneko taldeak onartuko dira, adinekoekin eta arrisku taldeetan daudenekin izan ezik, etxean, kalean edo terrazan batean izan daiteke. «Bi metroko segurtasun tartea zaindu beharko da, eta higie-ne arauak errespetatu beharko dira».

1 fase honetan itxita egongo dira liburutegiak, museoak eta ikuskizun zein jardura kultureko lokalak. Eta hainbat tabernek irekitzeko aukera izango dute. **K**



**Zorionak Lide!**  
Aitona-amona, osaba-izeba eta lehengusuen partez.  
**3 urte**

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

· 638 421 060 ·

Hernani - Astigarraga - Donostia

Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

**GAUR** Euri gubiago egingo du gaur, goizean eguraldia nahiko lasai egongo da, baina arratsaldean hodeiak agertuko dira eta horrek euria eragingo du. **Min.12° / Max.17°**

**BIHAR** Bihar giro nahasia izango dugu. Hala ere, egunaren lehen partean ateri eutsiko dio, baina arratsaldean hodeiak ugartuz joango dira eta euria egingo du. **Min.11° / Max.16°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## Haurren sexualitateak hizpide, ostegun arratsaldeko hitzaldian

Ostegunean, 'Haurren sexualitateak' hitzaldia eskainiko da 'Zoom' plataforma bidez, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. Galderak unean eta anonimoki egiteko aukera egongo da.

### HERNANI ARREMANITZ

Haurren sexualitateak hitzaldia prestatu da ostegun arratsalderako. Foro hau, Arremanitzek prestatu du, hainbat elkarte eta udalekin batera, hala nola, Hernaniko Udala, Berdintasun Kontseilua, Plax, eta Tratu Onen herria.

Antolatzaileek azaldu dute, guresok egunero zituzten «erronkak gutxi baziren, Koronabirusak muturreko egoerara ekarri dituzte, aukera eta zailtasunak biderkatuz». Horrekin

batera gehitu dute, haurrekin elkarbizitza «intentsoagoa dela, partekatzen diren une bereziak gehiago direla, baina nekeak eta haserrealdiak ere».

Sexualitateak, etxeko giro ezberdinetan «ageriko» lekua har dezakeela ere jakinarazi dute, hala nola, «begi bistako esplorazioak, galdera deserosoak, mugikorren bitartez sartzen diren edukiak. Agian kezkatzen gaituzten egoera indefinituekin ere topa gaitezke. Beste batzuk aukera polita ikusiko dute, haurren sexualitateei modu sano

eta berritzaile batetik begiratze-ko».

Hori guztia kontuan hartuta, irtenbide eta zaintza praktikoko sorta eskainiko da ostegun arratsaldeko saioan, eta «elkarrekin bizi diren gurasok bikote harreman intimoak zaintzeko eta bizi-pozari heltzeko, gako errealista eta egingarri batzuk eskainiko dira».

Aurrez izena eman behar da osteguneko hitzaldia ikusteko aukera izateko, esteka honetan sartuz: <https://www.arremanitz.eus/kontaktua/>. Iruzkinean idatzi 'Hernani haurren sexualitateak', eta «bota galdera iruzkintetan! anonimoa da».

'Zoom' plataforman egingo da eta esteka izena eman ondoren pasako da. **K**



Esne Beltza taldeko kideek etxetik sortu dute 'Agurrik ez' abestia.

## Bertsio etxekoia, Esne Beltzak

**URUMEA** ESNE BELTZA Konfinatuta gauden honetan, Agurrik ez abestia sortu dute Esne Beltza taldeak, etxetik sortuz. Taldearen musikak eta

Jon Garmendia "Txuria"-ren hitzek gidaturik, Gaizka Peñafielek editatutako ikusentzunezko honek, kontatzen du, preso bizi diren egoera.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## Etzi amaitzen da 'Guztion' egitasmoan izena emateko epea

Aurreko urtean 'Guztion' egitasmoa jarri zuen martxan Hernaniko Udalak, herri guneetan hutsik dauden lokal komertzialak dinamizatzeko asmoz. Eta etzi izango da egitasmoan izena emateko azken eguna.

### HERNANI GUZTION EGITASMOA

Hernaniko Udalaren helburua, herrian zehar hutsik dauden lokal komertzialak dinamizatzea da. Oraingo fase hau bigarren da, eta izena emateko aukerak etzira arte iraungo du. Bi mo-

durtara eman daiteke izena, [guztionhernani@gmail.com](mailto:guztionhernani@gmail.com) era idatziz edo 943 33 52 58 zenbakira deituz.

Hainbat baldintza bete behar dira horretarako, hala nola, lokalak eremu hauetan egotea: Andre Kale, Kale Nagusia, Izpi-

zua, Biteri, Atsegindegi, Nafar Kalea, Elkano 1-19 zenbaki artean, Urbieta 5-12 zenbaki artean, Txirrita kalea, eta azkenik Antziola kalea. Eta bigarren baldintza, aurretik jarduera ekonomikoa izan duen lokala izatea, hau da, erakusleihua duena. **K**

## Indarrean oraindik, etxebizitzaren inguruko «premiazko» neurriak

Hernaniko Kaleratze Stop elkarteak, jakinarazi du, oraindik indarrean jarraitzen dutela, Covid-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko «ez-ohiko premiazko» neurriak.

### HERNANI KALERATZE AK STOP

Covid-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko, Espainiako Gobernuak ez-ohiko premiazko hainbat neurri onartu zituen, eta Hernaniko Kaleratze Stop elkarteak, jakinarazi nahi izan du, oraindik indarrean jarraitzen dutela. Eta hainbat argibide eman dituzte; etxegabeteak entenda daude 6

hilabetez, «hipoteken zein alokairuen, alarma egoera amaitzen denetik aurrea».

Debekuak bere horretan jarraitzen du, «uraren, elektrizitatearen, gasaren, berokuntzarako gasolinaren eta telekomunikazio finko eta mugikorren oinarriko hornidurak ez ordaintzeagatik».

Automatikoki eta baldintza berdinetan luzatuko direla ere

aipatu dute, «alarma egoeratik 2 hilabete igaro arte amaitzen diren alokairu kontratuak». Eta gaineratu dute, zenbait laguntza aktibo daudela, «interesik gabeko mikrokredituak eta alokairuak ordaintzeko balizko moratorioak».

Hala ere, uste dute, «ez direla nahikoak etxebizitza duina izateko oinarriko eskubidea bermatzeko. Plataformatik presioa eta borroka egiten jarraitzen dugu, eta jarraituko dugu».

Harremanetan jartzeko kontaktua 604 112 740 telefonoa eta [stopdesahucioshernani@nodo50.org](mailto:stopdesahucioshernani@nodo50.org) helbidea dira. **K**

**JESÚS MARÍA SILVA RODRIGUEZ**  
Beti eramango zaitugu bihotzean osaba  
**ZURE ILOBAK; MAITANE ETA SERGIO, JOKIN, MAIALEN ETA ODEI, IKER ETA KATTALIN**  
Hernanin, 2020ko maiatzaren 11

**JESÚS MARÍA SILVA RODRIGUEZ**  
Beti izango zaitugu gogoan  
**OSABA IZEBAK; JOAKINA ETA MIGUEL; LEHENGUSUAK; MIKEL ETA JASONE, JUAN MARI ETA XALBADOR, JON ANDER**  
Hernanin, 2020ko maiatzaren 11n

### IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

**karrero**  
KAFETEGIA  
**Bihar irekiko ditugu ateak**  
Etxera eramateko janaria prest izango dugu  
Urbieta Kalea, 15 · 20120 Hernani  
T. 943 55 26 07 · [karrerokafetegia@gmail.com](mailto:karrerokafetegia@gmail.com)